

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: 1890/2006/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 20koa, Kontseiluaren 571/88 (EEE) Erregelamendua aldatzen duena, nekazaritza-ustiategien egiturari buruzko Erkidegoko inkestak antolatzeari buruzkoa, 2007-2009 epealdirako finantza-esparruari, eta Europako Erkidegoak Bulgariari eta Errumaniari eman beharreko gehieneko diru-laguntzari dagokionez.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Reglamento (CE) n° 1890/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 20 de diciembre de 2006, por el que se modifica el Reglamento (CEE) n° 571/88 del Consejo, relativo a la organización de encuestas comunitarias sobre la estructura de las explotaciones agrícolas, en lo que se refiere al marco financiero para el período 2007-2009 y a la contribución comunitaria máxima para Bulgaria y Rumanía* » (Diario Oficial de la Unión Europea, L 386/12 de 29/12/2006)

**1890/2006 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA  
2006ko abenduaren 20koa,**

**2007-2009 epealdirako finantza-esparruari dagokionez eta Europako Erkidegoak Bulgariari eta Errumaniari eman beharreko gehieneko diru-laguntzari dagokionez, nekazaritza-ustiategien egituraren gaineko erkidegoko inkestak antolatzeari buruzko Kontseiluaren 571/88 (EEE) Erregelamendua aldatzen duena,**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR  
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europar Erkidegoa eratzeko Trataturia, eta, bereziki,  
haren 285. artikuluan 1. paragrafoa aztertu dute,

Bulgariaren eta Errumaniaren Atxikitze-akta, eta,  
bereziki, haren 56. artikulua aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Trataturaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari  
jarraituz <sup>(1)</sup>,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Kontseiluaren 571/88 (EEE) Erregelamendua <sup>(2)</sup>  
estatu kideei diru-laguntzak itzuliko dizkietela  
ezartzen du, izandako gastuak direla-eta, eta inkesta  
bakoitzeko gehieneko zenbateko bateraino.

(2) Nekazaritza-ustiategien egiturari buruzko inkestak  
egiteko estatu kideek eta Erkidegoak diru asko jarri  
behar dute, Erkidegoko erakundeen informazio-  
beharrizanak bete ahal izateko.

(3) Bulgaria eta Errumania Erkidegoan sartzeko, eta  
2007an, estatu kide berri horietako nekazaritza-  
ustiategien egiturari buruzko inkestak egiteko,  
komeni da inkesta bakoitzeko Erkidegoaren  
gehieneko diru-laguntza finkatzea. Atxikitzearen  
ondorioz beharrezkoa da egokitzapen hori egitea,  
baina Atxikitze-aktan ez zen aurreikusi.

(4) Programan bete gabe geratzen den epealdirako,  
Erregelamendu honek finantza-laguntza bat ezartzen  
du, Aurrekontu Agintaritzarako lehentasunezko  
erreferentzia izango dena, aurrekontuei buruzko  
diziplinari eta behar bezalako finantza-kudeaketari  
buruz 2006ko maiatzaren 17an Europako  
Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen  
arte sinatutako erakunde arteko Akordioaren 37.  
paragrafoari jarraiki, <sup>(3)</sup>.

ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

*1. artikulua*

571/88 (EEE) Erregelamenduan honako aldaketa  
hauek egin dira:

1. 14. artikuluan, 1. paragrafoan, 1. lerroaldean,  
honako zati hauek erantsi dira:

«— 2.000.000 euro Bulgariarentzat,

— 2.000.000 euro Errumaniarentzat. »

2. 14. artikuluan, 1. paragrafoan, hirugarren,  
laugarren eta bosgarren lerroaldean ordez, testu hau  
jarriko da:

«Programa hori aplikatzeko finantza-hornidura,  
Eurofarm proiektua kudeatzeko beharrezko kredituak  
barne hartuta, 20.400.000 eurokoa izango da 2007-  
2009 epealdirako.

Aurrekontu-agintaritzak finantza-esparruaren muga  
barruan baimenduko ditu urteko kredituak.»

<sup>1</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006eko  
abenduaren 12koa (Egunkari Ofizialean oraindik  
argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko  
abenduaren 20koa.

<sup>2</sup> (1)L 56 EO, 1988.3.2koa, 1 or. Batzordearen 204/2006  
[EE] Erregelamendua (L 34 EO, 2006.2.7koa, 3. or.)  
aldatu zuen Erregelamendua.

<sup>3</sup> C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or.

## 2. artikulua

*Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeiei egunera, jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

1. artikulua, 1. paragrafoa, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu ahal izango da.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak eta Estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Bruselan, 2006ko abenduaren 20an.

<i>Europako Parlamentuaren</i>	<i>Kontseiluaren</i>
<i>izenean</i>	<i>izenean</i>
<i>Presidentea</i>	<i>Presidentea</i>

J. BORRELL FONTELLES    J. KORKEAOJA